

Ezpalak

JON TORNER

Aaron Thomas talde madrildarrak irabazi du Bilbao Hiria Pop-Rock lehiaketaren 20. edizioa. Euskal Herriko talderik onenaren saria Munlet talde gipuzkoarrentzat izan da, eta metal banda onenarena Tenerifeko Meridian Zerorentzat.

Iñigo Ibañez eta Justy Garcia argazkilariek *Askatasunaren hiribidea* izeneko erakusketa paratu dute Donostiako Kutxa Boulevard aretoetan. Halaber, Rose Marie Stinusen akuarela ere ikusgai daude leku berean. Hilaren 29a arte izango dira bi erakusketak zabalik.



Galeusca Federazioa sortu dute idazle euskaldunak, galiziarak eta katalanak biltzen dituzten elkarteek. Elkarren arteko lankidetzak sustatzea izango da Federazioaren helburua. Pasa den igandean aurkeztu zuten Pobleteko monasterioan (Herrialde Katalanak) egindako ekitaldian.

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak *Faborez 1* diskoan bildu zituen kanten partiturak plazaratu ditu, *Faborez, 01* liburuan. Xabi Aburruzaga izan da transkripzioen arduraduna.

Gwendal, Nadau eta Celtas Cortos Mendebala jaialdian izango dira

MENDEBALA Sopuertako folk jaialdia dataz aldatzea erabaki dute antolatzaileek, aurreikusitako asteburuan Bilbao BBK Live jaialdia egingo delako. Astebete aurreratu dute, hilaren 27 eta 28ra. Besteak beste, Gwendal, Celtas Cortos eta Nadau taldeek eskainiko dituzte kontzertuak. Ohi bezala, sarrera doakoa izango da eta akanpatzeko lekua ere prestatuko dute. Jaialdian helburua Kantauri aldeko kultur aniztasuna islatzea eta hango herrien arteko harremana sendotzea da. Egitarau osoa Interneten kontsulta dezakezue, www.mendebalasopuerta.net webgunean.



“PornoPunkFeminismoa” topaketak egingo dira uztailen Artelekun

UZTAILAREN 2TIK 5ERA bitartean *PornoPunkFeminismoa. Mikeropolitika queer-ak eta mendeko pornografiak* izeneko topaketak egingo dira Artelekun. Ikerketa eta ekoizpen post-pornografikoa, sexualitatea irudikatzen kode tradizionalen kritika eta mendeko sexualitateen multimedia irudikapena izango dira ekimenaren ardatzak. Besteak beste, mintegiek, *performance*-ek eta tailerrek osatuko dute egitaraua. Izena emateko epea ekainaren 25ean amaituko da. Topaketen koordinatzailea Beatriz Preciado filosofoa eta queer aktibista da.

Antzerki talde amateurren zirkuitua

ARABA ESKENA kultur elkarteak antzerki talde amateurrei zuzendutako Araba Eskena Zirkuitua sortu du, Arabako Foru Aldundiaren babesarekin. Antzerki konpainiek uztailearen 15a baino lehen helarazi beharko dituzte euren proposamenak, formatu txiki eta ertaineko obrak, euskarazkoak zein gaztelarazkoak. Aukeratutako sei taldeek euren ikuskizuna zuzenean eskainiko dute azaroaren 20tik 30era bitartean. Interneten: www.arabaeskena.com.

[Mari Feli Etxeandia Kukubiltxo antzerki taldeko aktoreak](#) *Aizu!* aldizkarian: «Badakigu nagusientzako antzezlan bat emanaldi gutxitan amaitzen dela euskaraz eginez gero. Euskal Herrian gutxi bagara, euskaldunak gutxiago eta antzerki zaleak oraindik gutxiago; beraz, ia derrigorrezkoa da erdarazko bertsoia egitea, baina ez Euskal Herriko erdaldunentzat bakarrik. Esfortzu handia egin dugu, eta antzezlan ahalik eta gehien zabaldu nahi dugu, bai Estatu Espainolean, bai Hego Amerikan».

[Mikel Markez abeslaria elkarrizketatu dute](#) *Berrian*: «Benetan kultura bati osasuntsu eusten diotenak artistak dira, eta ez naiz nekatuko hori esaten, nahiz eta ematen duen ez duela inork entzuten (...) Munduko musikari onenak etortzen dira hona. Eta ez bakarrik pop-rockean. Orkestra onenak, operan, folkloean... jazzean zer esanik ez. European ez da egingo herrialde

bat hainbeste jazz jaialdi eta ekitaldi egiten direna. Kulturaren gatazke herrialde honek ez du problemarik».

[Marie Darrieussecq idazleak](#) *Gararen Mugalarri gehigarrian*: «Fikzioak hobeki azaltzen du errealitatea, denik eta dokumentalik onenak baino (...) Autofikzioaz idatzi nuen tesia 1997an. Irakurle gisa interesatzen zait autofikzioa, ez, ordea, idazle gisa. Idazle gisa, autofikzioaren ondorengoak arduratzen nau: ez nire bizitza erakustek, besteen bizitza erakustek baizik».

[Okene Abrego Inoren Ero Ni taldeko kideak](#) *Gaztezu-
lo* aldizkarian: «Bai soinu, bai diseinuaren aldetik, CDak baino dotoreagoak dira biniloak. Ez dut uste biniloak CDari lekua jango dionik, ezta etorkizuna denik ere; baina ahal den bitartean, diskoak biniloan kaleratzen jarraituko dugu».